



Arantxa Urretabizkaiaren unibertso literarioa: desira eta boterea helduaroan



Uzt. 04 - Uzt. 05 2024

Kod. L03-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 04 - Uzt. 05 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Azalpena

Euskadi Literatura Sariaren azken irabazlearen, Arantxa Urretabizkaia idazlearen narratiba lanek abagune aparta eskaintzen digute Uda Ikastaro honetan eztabaidatu nahi ditugun ardatz teorikoei buruz hausnartzeko. Literaturatik eta zinematik datozen itzal handiko adituak arituko dira hizlari, herri-kulturatik bizi dituztenak beren ilusio, afektu eta sexualitatea(k), eta, eraldaketa politiko, sozial, afektibo nahiz sormenezkoa helburu duten proiektuetan dabilzanak.

Zahartzaroa bizitzaren aro bat da, eta hala bizi dute hizlariak; gainerako aroen antzera, ezaugarri, erronka eta beharizan jakinak dituen sasoitzat. Ikastaroan jorratuko diren gogoetagai batzuk Urretabizkaiaaren narratibatik haratago badoaz ere, haren obra literarioa gaur egungo eztabaida feminista askoren erdigunean dauden funtsezko auziez hausnartzeko akuilu eta oinarri sendoa da..Auzi horietaz guztietaz aritzeko, Ikastaro honetan diziplinarteko ikuspegia sustatuko dugu eta euskal eremutik haratagoko elkarrizketan sakontzen ahaleginduko gara.

Helburuak

Adina, generoa eta sexualitateaz eztabaidatzea eta hausnartzea ezagutza-arlo desberdinetako adituekin.

Lankidetzak



Programa

2024-07-04

09:30 - 09:45 Erregistroa/ Registro

09:45 - 10:00 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Mari Jose Olaziregi Alustiza | UPV/EHU - Katedraduna

Joana Sabadell Nieto | Hamilton College - Katedraduna

10:00 - 10:45 “Erótica y libertad femenina en la era de la renovación”

Anna Freixas Antic | Universidad de Córdoba - Escritora y Profesora Emérita

10:45 - 11:30 “Incorporaciones. La desobediencia como forma de felicidad”

Joana Sabadell Nieto | Hamilton College - Katedraduna

11:30 - 12:00 Preguntas/ Debate (Freixas y Sabadell)

12:00 - 12:30 Atsedena

12:30 - 13:15 “Lesbiana madura busca visibilidad para relación comprometida y lo que fluya”

Meri Torras Francés | Universitat Autònoma de Barcelona - Profesora Titular

13:15 - 14:00 Preguntas/Debate (Torras, Olaziregi y Sabadell)

2024-07-05

09:30 - 10:00 “Las viejas somos el futuro”

Anna Freixas Antic | Universidad de Córdoba - Escritora y Profesora Emérita

10:00 - 10:30 “Emakumeen zahartzaroari buruzko euskal filmografia”

María Pilar Rodríguez Pérez | Deustuko Unibertsitatea - Irakasle Titularra

10:30 - 11:00 “Andrezaharraren manifestua”

Mari Luz Esteban Galarza | UPV/EHU - Irakasle Titularra

11:00 - 11:30 Galderak/eztabaida: Mari Luz Esteban & Pilar Rodriguez

11:30 - 12:00 Atsedena

12:00 - 12:30 “Arantxa Urretabizkaiaren "Azken etxea". Bizitza berri bat zahartzaroan”

Mari Jose Olaziregi Alustiza | UPV/EHU - Katedraduna

12:30 - 13:30 “ Arantxa Urretabizkaia: Zahartzarotik/zahartzaroaz idaztea “

Arantxa Urretabizkaia Bejarano | Idazlea

13:00 - 13:30

Galderak/eztabaida: Urretabizkaia & Olaziregi

13:30 - 14:00

“Ondorioak/azken solasaldia: Urretabizkaia & Olaziregi & Sabadell-Nieto“

Mari Jose Olaziregi Alustiza | UPV/EHU - Katedraduna

Joana Sabadell Nieto | Hamilton College, USA - Katedraduna

Arantxa Urretabizkaia Bejarano | Autonomia - Idazlea

Zuzendaritza



Mari Jose Olaziregi Alustiza

UPV/EHU, IRAKASLE KATEDRADUNA

Mari Jose Olaziregi Alustiza (Donostia, 1963) Euskal Filologian doktore eta literatura irakasle katedraduna UPV/EHU. Atzerriko hainbat unibertsitatetan irakatsi du, hala nola, Center for Basque Studies-en (2007-9) (University of Nevada, Reno, AEB), Universität Konstanz (2009-10) (Alemania), University of Chicago (2015-6) eta CUNYren Graduate Centerren (2014-15; 2016-17; 2020-2021). Studies in Fiction Masterra burutu zuen Erresuma Batuko University of East Anglian. 2004tik Center for Basque Studies-eko Basque Literature Series sailaren zuzendaria da eta 2003tik Euskaltzain Urgazle. 2010etik 2016ra Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko Zuzendaria izan zen. Lantzen dituen arloen artean, Euskal eta Iberiar Literaturaren Historia eta Kritika, Literatura Konparatua, Genero Ikasketak eta Ikasketa Kulturalak aipa genitzake. 11 liburu, editatutako beste 18, liburuetako 92 atal baino gehiago edo 81 artikulua aldizkari zientifikoetan ditu argitaratuak. Hainbat Unibertsitateko ikertaldetako kide da ("Celt", "Liter21" eta "Lijmi" (Universidad de Santiago de Compostela), edo Red de Investigadores Memory and Narration (U. Aarhus). 2012tik MHLI Ikertalde Kontsolidatua zuzentzen du.



Joana Sabadell Nieto

Hamiltón College, Catedratica

Joana Sabadell-Nieto es catedrática Burgess de Estudios Hispánicos como reconocimiento a su labor investigadora. Ha sido profesora en Dartmouth, en la Univ. del Estado de Nueva York y en Hamilton. Como docente e investigadora se ha centrado en el pensamiento e interpretaciones de la cultura (literatura, cine, artes) desde el feminismo y el género. Libros y colecciones de ensayos: Differences in Common. Gender, Vulnerability and Community (2014). Co-editora con Marta Segarra. Rodopi. Desbordamientos. Transformaciones culturales y políticas de las mujeres (2011). Ed. Icaria. Mujeres y naciones. (Monográfico, 2009). LECTORA. Revista de dones i textualitat. UB. Cien años de poesía. 53 poemas en catalán, gallego y vasco: estructuras poéticas y pautas críticas (2007). Peter Lang. Mosaico ibérico. Ensayos sobre poesía y diversidad (1999). Ed. Júcar. Fragmentos de sentido. La identidad transgresora de Jaime Gil Biedma (1997). P.P.U.- Univ. de Barcelona. Spain Today: Essays on Literature, Culture, Society (1995). Co-editora con Duplaa, Colmeiro y Green. Transcripción de "Mi fuero interno", diarios de Torrente Ballester. Artículos: varios sobre el cine de Isabel Coixet y sobre la narrativa de Marta Sanz. Ha escrito y dado conferencias

Irakasleak



Mari Luz Esteban Galarza

UPV/EHU, Irakasle titularra

Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatu (EHU, 1983) eta Familia Plangintza zentro batean lan egin zuen Basaurin (Bizkaia). 1993. urtean Kultur Antropologian doktore titulua lortu zuen Bartzelonako Unibertsitatean. 1998tik aurrera EHUn lan egiten du, non Gizarte Antropologia irakasle titularra eta Ikasketa Feministak eta Generokoak doktorego programako, eta AFIt-Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko koordinatzailea den. Bere argitalpenen artean hauexek nabarmen daitezke: Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio (Edicions Bellaterra, 2004), Crítica del Pensamiento Amoroso (Edicions Bellaterra, 2011) eta Feminismoa eta politikaren eraldaketak (Susa, 2017). Bi poema-liburu ere idatzi ditu: Amaren heriotzak libreago egin ninduen (Pamiela, 2013) eta Andrezaharraren manifestua (Pamiela, 2019). AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko koordinatzailea da.



Anna Freixas Antic



María Pilar Rodríguez Pérez

Universidad de Deusto

Deustuko Unibertsitateko Komunikazio Saileko irakasle titularra eta Aisialdia, Kultura eta Giza Garapenerako Komunikazioa doktoregoko zuzendaria. Harvardeko Unibertsitatean doktorea da (Cambridge, AEB). 2002ra arte irakasle izan zen Columbiako Unibertsitatean (New York, AEB). Literatura, zinema, kultura eta genero ikerketei buruz luze eta zabal argitaratu du (zazpi liburu, zortzi liburu argitaratu, berrogei liburu kapitulu eta hogeita bost artikulua aldizkari indexatuetan). Eusko Jaurlaritzak aitortutako Komunikazio Taldeko ikertzaile nagusia da, a kategoriarekin eta finantzaketarekin. Bulletin of Hispanic Studies, Hispanic Review edo Journal of Spanish Cultural Studies bezalako lehen mailako aldizkari akademikoen ebaluazioetan parte hartu ohi du. European Visual Cultures argitaletzeko kide da eta Feminismo (s) -eko erredakzio kontseiluko kide.



Meri Torras Francés

Meri Torras es profesora de teoría de la literatura y literatura comparada en la Universitat Autònoma de Barcelona (España). Sus trabajos de investigación versan sobre ámbitos como la autografía, la identidad, la autoría, el cuerpo, el género y la sexualidad, con especial dedicación al comparatismo entre literatura y artes audiovisuales. Ha sido profesora invitada en varias universidades europeas y latinoamericanas. Entre sus publicaciones, destacaremos, *Feminismos literarios* (1999), *Los papeles del autor* (2016) y *¿Qué es una autora?* (2019). Desde 2005 dirige el grupo investigador "Cuerpo y Textualidad" (<http://cositextualitat.uab.cat>), y desde 2018/19 es coordinadora del primer Grado en Estudios de Género del ámbito español.



Arantxa Urretabizkaia Bejarano

Arantxa Urretabizkaia (1947) da, zalantzarik gabe, euskal eleberraren berritzaile handienetako bat. Lanbidez kazetaria, Donostiako Lur argitaletxeako kide izan zen. Poesia eta zine-gidoiak idatzi dituen arren, eleberriak dira euskal sistema literarioan leku garrantzitsua eman diotenak. Desberdintasunaren feminismotik gertu dagoen Zergatik Panpox (1979) ezagunaren ostean, honako eleberririk argitaratu ditu: *Saturno* (1987), sei hizkuntzatarara itzulita dagoen *Koaderno Gorria* (1998), *Hiru Mariak* (2010), *Zuri-beltzeko argazkiak* (2014), eta berriki Euskadi Literatura Saria irabazi duen *Azken etxea* (2022). Saiakerako Euskadi Saria ere eskuratu zuen *Bidean ikasia* (2016) Hondarribiko alardeari buruzkolanak.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-04 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	71,00 EUR
Elkar	-	71,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	71,00 EUR
Donostia Kultura	-	71,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa